



euskalmendizale**federazioa**

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

***EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN BATZARREAN
2015-11-7AN ALDATUAK***

AURKIBIDEA

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

II. TITULUA: FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

**III. TITULUA: GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA
ORGANOAK**

I. KAPITULUA: BATZAR NAGUSIA

II. KAPITULUA: ZUZENDARITZA BATZORDEA

III. KAPITULUA: LEHENDAKARIA

IV. KAPITULUA: XEDAPEN KOMUNAK

IV. TITULUA: FEDERAZIOAREN ESTAMENTUAK

V. TITULUA: DIZIPLINA ERREGIMENA

VI. TITULUA: HAUTESKUNDE ERREGIMENA

VII. TITULUA: EKONOMIA ETA ONDARE ERREGIMENA

VIII. TITULUA: AGIRI ERREGIMENA

IX. TITULUA: FEDERAZIOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

X. TITULUA: ESTATUTUAK ETA ARAUTEGIAK

XI. TITULUA: HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA

XII. TITULUA: AUZIEN JUDIZIOZ KANPOKO EBAZPENA

XEDAPEN IRAGANKORRAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

ESTATUTUAK EMF

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN ESTATUTUAK

AURREKARIAK. Euskal Mendizale Federazioa Elgetan (Gipuzkoa) sortu zen, 1924. urteko maiatzaren 18an, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Mendi Elkarteek sustatuta, Federación Vasco-Navarra de Alpinismo izenez.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Euskal Mendizale Federazioa [aurrerantzean EMF (Euskal Mendizale Federazioa)] nortasun juridiko propioa eta ekintzak antolatzeke gaitasuna dituen irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatua da. Euskal Autonomia Erkidegoan mendiko modalitatean kirola egiten edo bultzatzen aritzen diren kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak eta kirol elkarteak barne hartzen ditu.

Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinarekin, kirol modalitateei eta diziplinei buruzkoarekin, bat etorrira, honako hauek dira mendiko kirola osatzen duten diziplinak: orientazioa, mendiko eskia, mendi lasterketak, eskalada haitzetan, kirol eskala, alpinismoa, mendiko ibilaldiak, martxak, arroilen jaitsierak eta espeleologia.

Diziplina berriak txertatu ahal izango dira, betiere indarrean dagoen legediarekin bat etorriz.

2. ARTIKULUA

EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) honako hauek arautzen dute: ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolaren Legeak; urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko Kirol Federazioenak, eta legea garatzen duten gainerako xedapenek; Estatutu hauek eta arautegi bereziek, eta bertako organoek adostutako erabakiek.

3. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) egoitza Donostian dago, honako helbide honetan: Errotaburu Pasealekua 1. zk., 9. Solairua - Donostia. 20018 PK. Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

4. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) honako helburu hau du, bere lurralde eremuaren barnean, 1. artikuluan aipatutako kirol modalitate guztietan:

Mendiko kirola sustatzea, eta
jarduera eta lehiaketa ofizialak kalifikatzea, baimentzea, arautzea eta antolatzea.

5. ARTIKULUA

EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) euskal kirol federatuaren ordezkaria da, dagozkion kirol modalitateetan Estatuan.

6. ARTIKULUA

Helburu horiek aurrera eramateko, EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ondoko funtzio hauek beteko ditu:

- a) Dagokion kirol modalitatea ordezkatzeko Estatuan eta, hala dagokionean, federazioa beste erakunde batzuei atxikitzeke era zehaztea.
- b) Partaide diren lurralde federazioen jarduera koordinatzea.
- c) Dagokion lurralde eremuan lehiaketa eta jarduera ofizialak antolatzea, 1. artikuluan aipatutako diziplinetan.
- d) Parte hartzeke eta lehiatzeke arauak ezartzea, betiere, beste lurralde eremu bateko federazioek ezarritako arauak betetz, hala dagokionean.
- e) Estamentu guztiek Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten baliabideak jartzea.
- f) Federazio lizentziak ematea.

ESTATUTUAK EMF

- g) Federazioaren jarduera aurrera eramatean sortutako arazoez arduratzea eta horiek konpontzea, organo judizialek eta kirol epaileen organoek ere euren aginpideak dituztela kontuan izanik.
- h) Federazioaren arautegiak betetzen direla bermatzea, eta arau horien arabera duen diziiplina ahalmena betetzea.
- i) Administrazioari laguntzea debekatutako substantziak, talde farmakologikoak eta arauz kanpoko metodoen erabilera prebenitzen, kontrolatzen eta zigortzen, horretarako xedatuta dagoen araudiarekin bat etorritik.
- j) Dagokion kirol modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzea, horretarako ezarriko den araudiarekin bat.
- k) Baliabide ekonomikoen helburua zehaztea eta baliabideok esleitzea, beste erakunde batzuek bere jarduerarako transferitzen dizkioten baliabideak kudeatzea, eta baliabide guztiak ongi erabiltzen direla kontrolatzea.
- l) Lurralde federazioentzako, eta hala dagokionean, kirol klub eta elkarteentzako diru laguntzak esleitzea, eta aplikatzen direla kontrolatzea.
- m) Euskadiko administrazioei laguntzea kirola sustatzeko helburuetan, eta, bereziki, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean ematen dizkien lankidetzako eta aholkularitzako funtzio jakinetan.
- n) Estatutuak eta arautegiak egitea.
- ñ) Dagozkion kirol modalitateetan eta lurralde eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den heinean, bermatzea.
- o) Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, Euskadiko Kirol Federazioenean, 14. artikuluan araututako administrazio funtzio publikoak betetzea.
- p) Mendiko ingurumena babesten eta hobetzen laguntzea, bai eta mendian ibiltzeko ingurune naturaletara joateko aukera erraztea ere
- q) Eta, oro har, dagozkion kirol modalitateen jarduera sustatzeko eta hobetzeko komeni den guztia xedatzea.

7. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) lurralde federazioekin koordinatuta garatuko ditu bere funtzioak. EMFk bere jarduera eta lurralde federazioen jarduera koordinatzeko beharrezko diren neurri organiko eta funtzionalak sustatuko ditu, bateratuak ez diren jarduerak saihesteko, ahaleginak optimizatzeke, eta partaide den federazio sisteman ekintza batasuna lortzeko. Koordinazio funtzioak subsidiarioki beteko dira, funtzio horien helburuak lankidetzaren edo partaidetzaren bidez ezin lor daitezkeenean.

8. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) barnean ez da onartuko inolako bereizkeriarik ez arraza, sexu, erlijio, iritzi edo sinesmenengatik, eta ezta norbanakoaren zein gizartearen beste edozein izaera nahiz gorabeherarengatik ere.

II. TITULUA.- FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

9. ARTIKULUA

1.- Federazio lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da; bere titularrari EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kide izaera ematen dio, eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du, betiere, lehiaketa bakoitzean diren arauari jarraituz.

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estamentu bakoitzeko kide guztiek federazio lizentzia izan beharko dute, eskubideak eta betebeharrak dituzten kideak izateko eta lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko. Federazio lizentzia duten estamentuetako kide guztiek EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) lehiaketen eremuan ezarritako arautegiak, arauak eta xedapenak bete beharko dituzte.

2.- Federazio lizentzia bakarra izango da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horren bidez, titularra EMFri (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eta dagokion lurralde federazioari atxikita egongo da.

ESTATUTUAK EMF

- 3.- Aldi berean bi federazio horietako kide bihurtuko da dagokion lizentzia lortzearekin batera.
- 4.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) emandako lizentziak beste lurralde eremuetako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaituko du titularra, dagokion araudiak ezarritako kasu eta baldintzetan.

10. ARTIKULUA

- 1.- EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) da Euskal Autonomia Erkidegoan bere kirol modalitateko federazio lizentziak emateko eskumena duen erakundea, eta lurralde federazioak dira lizentziak izapidetzeko eskumena dutenak.
- 2.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) lizentziak emateko eskumena duenez, lizentzien erregimena –agiriena, kirolarena nahiz diruarena–, eskubideak eta betebeharrak, iraupena, indarrean sartzeko data, kategoriak, kuotak, prozedurak, formatua, eta antzeko gainerako alderdiak ezarriko ditu. Funtzio horrek barne hartuko du nahitaezko arrisku estaldura bermatzeko aseguru kolektiboak kontratatzea ere.
- 3.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) borondatzeko kuota gehigarria jaso ahal izango du bere federatuengandik, zerbitzu eta jarduera zehatz batzuk finantzatzeko.
- 4.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) lurralde federazioekin banatuko du lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia, Batzar Nagusian onartutakoaren eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 24.5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Honela lortuko da zenbateko garbi hori: zenbateko gordinari aseguruaren kuotaren zenbatekoa eta, hala badagokio, bere lurralde eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuotaren zenbatekoa kenduko zaizkio.

11. ARTIKULUA

- 1.- Lizentzien formatua eta edukia EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusiak onartuko ditu, eta lizentziotan, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.
- 2.- Lizentzien euskarriak komunikazioaren teknologiak egoki aprobetxatzeko moduko baldintza teknikoak izango ditu, eta Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu euskarri horien ezaugarri teknikoak.
- 3.- Lizentziaren agirian argi jasoko dira, gutxienez, honako kontzeptu hauek:
 - a) Nahitaezko aseguruaren kuota.
 - b) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
 - c) Lurralde federazioen egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
 - d) Beste lurralde eremuetako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala badagokio.
- 4.- Lizentziaren agirian, halaber, argi jasoko dira urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 25.4 artikuluan ezarritako edukiak.
- 5.- Federazioak lurralde federazio bakoitzari lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia Lizentzien Arautegian zehazten den moduan eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 24.5 artikulua zehaztutako eran banatuko dio. Honela lortuko da zenbateko garbi hori: zenbateko gordinari aseguruari eta, hala dagokionean, goragoko lurralde eremuetako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuotei dagozkien zenbatekoak kenduko zaizkio. Euskal Federazioak edo lurralde federazioek jasoko duten zenbatekoa ezin da izan, inola ere, zenbateko garbiaren % 35 baino txikiagoa.

12. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) emandako lizentziek urtebeteko iraupena izango dute, hau da, urte naturaleko iraupena.

13. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lizentzien Arautegian zehaztuko ditu federatuak aldi berean izan ditzakeen lizentzien bateragarritasunaren gaineko baldintzak eta ondorioak.

ESTATUTUAK EMF

III. TITULUA.- GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK

14. ARTIKULUA

1.- Hauek dira EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) gobernu, administrazio eta ordezkari organoak:

- a) Gobernu organoa, hau da, Batzar Nagusia.
- b) Kide anitzeko administrazio organoa, hau da, Zuzendaritza Batzordea.
- c) Batzorde Betearazlea deituriko administrazio organoa.
- d) Ordezkaritza organoa. Titularra EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) lehendakaria izango da.
- e) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kirol zuzendaritzaz eta zuzendaritza teknikoaz arduratuko den organoa.

2.- EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) barne antolaketan beharrezkotzat jotzen diren batzordeak eta gainerako organo osagarriak era daitezke, bai kirol jarduerak garatzeko, bai EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kide diren taldeen edo estamentuen funtzionamendurako.

I. KAPITULUA.- BATZAR NAGUSIA

15. ARTIKULUA

Batzar Nagusia EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) gobernu organo nagusia da, eta honako funtzio hauek bete behar ditu, gutxienez:

- a) Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.
- b) EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kontuak eta aurrekontuak onartzea.
- c) Estatutuak onartzea eta/edo aldatzea.
- d) Lehendakariaren aurkako eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura mozioa onartzea.
- e) Kirol jardueren eta lehiaketa ofizialen egutegia onartzea.
- f) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) jarduera plana onartzea.
- g) Federazioaren arautegiak onartzea eta/edo aldatzea.
- h) Ondasun higiezinak izatea, besterentzea eta zergapetzea, maileguak adostea eta zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailak ematea, estatutu honetan ezarritakoaren arabera.
- i) EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegitea erabakitzea.
- j) Eragin handia izateagatik Batzar Nagusian onartuak izatea eskatzen duten gainerako erabaki guztiak hartzea.

16. ARTIKULUA

1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusia lau urtean behin aukeratuko da, boto librea, zuzena, berdina eta sekretua oinarri hartuta, lurralde federazioen Batzar Nagusi bakoitzean egingo den hautaketan.

2.- Dena dela, hauteskundeak udako joko olinpikoen ospakizun urteekin bat etorri egingo dira, lurralde federazioetako Batzar Nagusiak berri ondoren.

3.- Salbuespen gisa, eta Eusko Jaurlaritza administrazioak berariaz hala baimenduta, hauteskunde prozesua atzeratu edo aurreratu egin daiteke, baldin eta ezarrita zegoen datan egitea ezinezkoa bada.

17. ARTIKULUA

1.- Lurralde federazioetako estamentuen ordezkariak osatuko dute Batzar Nagusia, lurralde federazioetako batzarretan hautaketa prozesua egin ondoren; ehuneko hauek beteko dira:

- a) Kluben eta kirol elkarten estamentuaren ordezkariak batzarreko kide guztien % 85ekoa izango da.
- b) Kirolarien estamentuaren ordezkariak batzarreko kide guztien % 7,5ekoa izango da.
- c) Teknikarien eta epaileen estamentuen ordezkariak batzarreko kide guztien % 7,5ekoa izango da.

ESTATUTUAK EMF

2.- Aurreko araua aplikatu ondoren, Batzar Nagusia osatzeko, Hauteskunde Batzordeak lurralde federazio bakoitzari ordezkari kopuru bat esleituko dio; horretarako, lurralde federazioek estamentu bakoitzean dituzten kideen kopurua EMFn (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) izena emanda dauden kide guztien kopuruarekin alderatuko da, eta kopuru proportzionala esleituko zaie.

3.- Gehienez ere 300 kidek osatuko dute EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusia. Hauteskunde Batzordeak zehaztuko du kideen kopuru osoa. Horretarako, eta, betiere, kopuru osoak gehieneko kopurua gainditzen ez bada eta lurralde federazio bakoitzeko kirol klubaren eta taldeen banaketa proportzionala errespetatzen bada, kirol klubaren eta taldeen estamentuari dagozkion tokiek aukera emango dute lurralde federazioetako Batzorde Nagusietako kide guztiek parte har dezaten estamentu horri dagokionez; gainerako estamentuetako kideen kopuruak artikuluko honetako 1. atalean zehaztutako ehunekoak aplikatuta zehaztuko dira.

18. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusian, klubaren eta kirol elkarten estamentuan, boto haztatua aplikatuko da edozein erabaki hartzeko, zentsura mozioaren kasuan izan ezik.

2.- Hauteskunde Batzordeak ezarriko du klubaren eta kirol elkarten estamentuko kide bakoitzari dagokion boto haztatua, Hauteskunde Araudian adierazten diren irizpideen arabera, baina estamentu horren boto kopuruak ezingo du Batzar Nagusiko boto guztien % 90 gainditu.

Esleitzen den boto haztatuak Batzar Nagusiaren agintaldi osorako balioko du.

3.- Kirolariaren estamentua ordezkatzeko duten pertsonak hemezortzi urtetik gorako kirolariaren artetik hautatuko dira, hauteskundeak egingo diren denboraldirako lizentzia indarrean dutenen eta aurreko denboraldian ere lizentzia indarrean izan zutenen artetik. Lehen azaldutako baldintzak betetzen dituzten hamasei urtetik gorako kirolariak aukeratu dituzte ordezkariok.

4.- Teknikariaren ordezkariak hauteskundeak egingo diren denboraldirako lizentzia indarrean dutenen eta aurreko denboraldian ere lizentzia indarrean zutenen artean hautatuko dira, lizentziaren kategoria edozein izanik ere.

5.- Epaileen ordezkariak hauteskundeak egingo diren denboraldirako lizentzia indarrean dutenen eta aurreko denboraldian ere lizentzia indarrean zutenen artean hautatuko dira, lizentziaren kategoria edozein izanik ere.

6.- Hautatutakoek betetzen duten epealdian Batzar Nagusiko kideen artean posturen bat hutsik geldituko balitz, Batzar Nagusirako azken hauteskundeetan estamentu bakoitzeko ordezkoren zerrendaburuak beteko du hutsik dagoen tokia, kasu horretarako Hauteskunde Arautegiak ezarritako prozedurarekin bat etorritik, betiere.

7.- Lurralde Federazio batean ordezkariarik ez duen estamentuaren bat badago, edo estamentua osatzen duen kide kopurua ez bada Lurralde Federazio horri ezarritako ordezkariak kopuru gutxienez iristen, estamentu horren postu hutsak Lurralde Federazio horren beste estamentuei proportzionalki egokitu ahal izango zaizkie.

19. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusia ohiko eta ohiz kanpoko bileretan biltzen da.

2.- Batzar Nagusiaren ohiko bilera urtean bi aldiz egingo da gutxienez, bata urteko lehen seihilekoan:

a) Kontuen egoera onartzeko.

b) Jarduera plana onartzeko.

Bestea, urteko bigarren seihilekoan:

a) Hurrengo denboraldiko jardueren eta lehiaketaren egutegi ofiziala onartzeko.

b) Aurrekontua onartzeko.

3.- Bere eskumenekoak diren bestelako gaiak ere ohiko bileran aztertuko dira, ondorengo paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.

4.- Batzar Nagusia ohiz kanpoko saioan bilduko da, honako gai hauek jorratzeko:

a) Hauteskundeak egitea.

b) Zentzura mozioa.

c) Arautegiak onartzea eta/edo aldatzea.

d) Estatutuak onartzea eta/edo aldatzea.

ESTATUTUAK EMF

e) EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegitea.

20. ARTIKULUA

1.- Ohiko eta ohiz kanpoko Batzar Nagusiak biltzeko deia egitea EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariari dagokio, Zuzendaritza Batzordeak hala eskatzen duenean edota Batzar Nagusiko kideen % 5ek, gutxienez, eskatzen duenean. Ezinezkoa balitz, edo Lehendakariak Batzar Nagusia biltzeko deia egiteko betebeharra beteko ez balu, Zuzendaritza Batzordeak edota Batzar Nagusiko kideen % 5, gutxienez, ordezkatzan dituen kide talde batek deialdia egin ahal izango dute.

2.- Deialdia egiteko ahalmena duten taldeek deialdirako eskaria egiten dioten egunetik, Lehendakariak Batzar Nagusia deitzeko gehienez 15 egun naturaleko epea izango du. Deialdia egiten den egunetik Batzarra egiten den egunera ezingo dira 30 egun natural baino gehiago igaro.

21. ARTIKULUA

Ohiko edo ohiz kanpoko Batzar Nagusiaren deialdia eta gai zerrenda idatziz helaraziko zaie Batzar Nagusiko kideei, bilera egin baino 15 egun lehenago gutxienez.

22. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusiko kideek beren ustez interesekoak diren gaiak bilerako gai zerrendan txertatzeko eska diezaioke Lehendakariari, eta horretarako gutxienez batzarra egin baino 8 egun lehenago egin beharko dute eskaera. Eskaera Batzar Nagusiko kideen % 5ek egin behar du gutxienez, txertatu beharreko gaia EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) interes orokorrekoa bada; eta estamentu bateko kideen % 5ek egin behar du, txertatu beharreko gaia batez ere estamentu horren intereseko bada.

2.- Egindako eskaera bilerako gai zerrendan sartzeari onartzen ez bada, eskaera egin duenari jakinarazi beharko zaio, ez onartzeko arrazoiak adieraziz.

23. ARTIKULUA

Batzar Nagusia balioz eratuta geratuko da lehen deialdian kideen erdia eta bat bertaratzen direnean. Bigarren deialdian, bertaratutakoen edozein kopuru aski izango da.

24. ARTIKULUA

1.-Batzar Nagusian ez da botoa eskuordetzea onartuko.

2.- Batzar Nagusian egingo diren bozketak sekretuak izango dira Lehendakariak hala erabakitzen duenean edo gutxienez Batzarreko kideen % 5ek hala eskatzen duenean.

II. KAPITULUA.- ZUZENDARITZA BATZORDEA

25. ARTIKULUA

Zuzendaritza Batzordea EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) administrazio organoa da, eta federazioko gaien kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa garatzen du, Batzar Nagusiaren irizpideekin bat etorritik.

Pyrenaicako zuzendaritzari dagokion kargua ez da diruz ordainduko, aldizkariaren jatorrizko espirituarekin bat etorritik. EMFren Zuzendaritza Batzordeak edo Batzarrak proposatuko du izendapena, eta Batzarrak onartu beharko du. Euskal mendizaleen artean izandako ibilbidean aldizkariarekin lotuta egon den eta haren funtsezko printzipioak ezagutzen dituen pertsona bat izango da.

26. ARTIKULUA

1.- Zuzendaritza Batzordearen kide kopurua bakoitia izango da, eta gutxienez honako hauek osatuko dute:

a) Lehendakaria: EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) lehendakaria bera izango da.

b) Lehendakariordea: lehendakaria ez dagoenean edo kargua hutsik dagoenean, lehendakari

ESTATUTUAK EMF

funtzioak beteko ditu.

c) Diruzaina.

d) Idazkaria..

e) Lurralde Federazioetako Lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko eskubide osoko kide izango dira.

2.- Zuzendaritza Batzordean federazioko idazkari teknikari batek, kudeatzaile batek edo administrari batek ere lagundu dezakete; kide horiek hitz egiteko eskubidea dute, baina ezingo dute botorik eman.

3.- Lehendakariorde eta Diruzain karguak pertsonak berak bete ditzake.

4.- Zuzendaritza Batzordeko kargu oro ohorezko karguak dira, Idazkari eta Diruzain karguak izan ezik; azken hauek ordaindutakoak izan daitezke.

5.- Batzar Nagusiko kide ez diren Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak Batzar Nagusian parte har dezakete; kide horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

27. ARTIKULUA

Zuzendaritza Batzordeak bere baitan izendatutako Batzorde Betearazleari funtzio guztiak edo funtzioetako batzuk eskuordetu ahal izango dizkio. Lurralde Federazioetako Lehendakariak Batzorde Betearazlean parte hartuko dute, hala nahi badute.

28. ARTIKULUA

1.- Zuzendaritza Batzordeko kideak lau urtetik behin hautatuko dira, bisurtearekin edo udako joko olinpikoen ospakizun urteekin bat etorriz, behin Batzar Nagusia berritutakoan. Botoen gehiengoa behar izango da, eta Batzar Nagusiko kideen boto libreak, berdinak, zuzenak eta sekretuak erabiliko dira, zerrenda itxi batez osatutako eta zerrendaburuan hautatu beharreko Lehendakaria izango duten hautagai zerrendak aurkeztu eta onartu ondoren. Lurralde Federazioetako Lehendakariak ez dira Batzorderako hautatuko, berezko batzarkideak baitira, eta ezingo dute inolako hautagai zerrendatan parte hartu. Hautagai bakarra izanez gero, ez da bozketarik egingo.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kideak berriro aukeratu ahal izango dira, baina agintaldien iraupena gehienez zortzi urtetakoa izango da, edo bi agintalditakoa, eta Zuzendaritza Batzordean izandako kargu guztien agintaldia hartuko da kontuan. Hala ere, zortzi urte igaro ondoren edo bere agintaldia amaitzetik beste bi agintaldi igaro ondoren, hauteskunde edo izendapen prozesu berrietan parte hartu ahal izango du.

29. ARTIKULUA

1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariari edo, horrek ezin badu, Zuzendaritza Batzordeko kideen % 25i dagokie bilera deia egitea.

2.- Deialdiarekin batera gai zerrenda igorriko da, eta bertan aztertu beharreko gaiak eta horiei dagozkien agiriak agertuko dira.

3.- Zuzendaritza Batzordeko kideei gutxienez bilera egin baino bi egun lehenago igorriko zaie deialdia, behar bezala justifikatutako premiazkotasuna dagoenean salbu.

4.- Zuzendaritza Batzordea balioz eratu dela ulertuko da baldin kide guztiak bertaratzen badira eta aho batez hori erabakitzen badute, nahiz eta aurretiko deialdirik ez egon.

30. ARTIKULUA

1.- Zuzendaritza Batzordea balioz eratuta geratuko da lehen deialdira kideen erdia eta bat bertaratzen direnean, eta, bigarren deialdira gutxienez kideen % 25 bertaratzen direnean. Nolanahi ere, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariak edo Lehendakariordeak ere bertaratu behar du.

2.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakaria, edo, hori egon ezean, Lehendakariordea, Zuzendaritza Batzordeko bileretako buru izango da, eta horren jarduera bideratuko eta koordinatuko du.

31. ARTIKULUA

ESTATUTUAK EMF

- 1.- Zuzendaritza Batzordea federazioko gaien kudeaketa administratiboaz eta ekonomikoaz arduratuko da, eta horiek Batzar Nagusiaren irizpideen arabera bete beharko ditu.
- 2.- Arautegi batean jasoko dira eskuorde litezkeen funtzioak, eta baita Batzorde Betearazlerako funtzionamendu erregimena eta erabakiak hartzeko erregimena ere.

32. ARTIKULUA

- 1.- Zuzendaritza Batzordeak honako arrazoi hauetako bat gertatzen denean utziko du kargua:
 - a) Zentzura mozioa onartzea.
 - b) Kideen % 50 baino gehiago hiltzea, edo horiek dimititzea.
 - c) Kideen % 50 baino gehiago gaitasunik gabe uztea edo ezgaitzea.
- 2.- Zuzendaritza Batzordeko kideek banaka utziko dute kargua honako arrazoi hauetako bat gertatzen denean:
 - a) Kideen % 50 baino gehiago hiltzea, edo horiek dimititzea.
 - b) Kideen % 50 baino gehiago gaitasunik gabe uztea edo ezgaitzea.
- 3.- Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok kargua uzten badute, ordezkioak Lehendakariak izendatu ahal izango ditu, eta Batzar Nagusiaren lehen bileran aukeraketa berretsi beharko da.
- 4.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariak kide berriak onartu ahal izango ditu EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Zuzendaritza Batzordean, egoki iruditzen bazaio, eta horretarako, gaia aztertzeko egindako deialdian kide gehienen onarpena beharko da. Batzar Nagusiaren lehen bileran erabakia berretsi beharko da.
- 5.- Aurreko zenbakietan jasota dagoena ez zaie aplikatuko Lurralde Federazioetako Lehendakariari, eta kargua uzteko arrazoiak federazio bakoitzeko estatutuek ezarriko dituzte.

33. ARTIKULUA

- 1.- Batzar Nagusiak erantzukizuna eskatu ahal izango dio Zuzendaritza Batzordeari. Horretarako, zentzura mozioa onartu beharko du, Batzar Nagusira bertaratzen diren kideen gehiengo osoz, helburu horrekin deitzen den bileran.
- 2.- Lehendakariak, idatzia jasotzen duenetik, hamabost egun naturaleko epea izango du gehienez Aparteko Batzar Nagusia deitzeko, eta gai hori izango da gai-zerrendako bakarra. Deialdia egiten den egunetik Batzarra egiten den egunera ezingo dira 30 egun natural baino gehiago igaro.
- 3.- Zentsura mozioa onartzen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek eta EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariak kargua utzi beharko dute, Lurralde Federazioetako Lehendakariak salbu; horiek Zuzendaritza Batzorde berrian eskubide osoko kide izango dira.
- 4.- Zentsura mozioa onartu ondoren, Hauteskunde Batzordea deituko da, gehienez ere hamabost eguneko epean, Zuzendaritza Batzorde berria hautatzeko hauteskunde-prozesua abiaraz dezan.

34. ARTIKULUA

- 1.- Zuzendaritza Batzordea kargutik kentzen denean, jardunean jarraituko du, eta Hauteskunde Batzordeari bilerara deituko dio, gehienez hilabeteko epean, Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko hauteskunde prozesuari hasiera eman diezaion.
- 2.- Ezinezkoa bada, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusiko kide guztien % 5 ordezkatzeko duen edozein kide taldek deitu ahal izango dio Hauteskunde Batzordeari.

35. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Idazkariak honako funtzio hauek beteko ditu gutxienez:

- a) Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak egiten dituzten bileren akta jasotzea.
- b) EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) liburuak eta agiriak zaintzea, kontabilitatekoak izan ezik.
- c) Liburu horietako edukiarekin lotuta egin beharreko ziurtagiriak egitea.

36. ARTIKULUA

ESTATUTUAK EMF

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Diruzainak honako funtzio hauek beteko ditu gutxienez:

- a) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kontuak eta eragiketa ekonomikoak zuzentzea.
- b) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kontabilitateko liburuak eramatea eta zaintzea.
- c) Kontabilitateko agiri guztiak prestatzea, bereziki urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzeko balantzea, gero Batzar Nagusiak onar ditzan.

III. KAPITULUA.- LEHENDAKARIA

37. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariak federazioaren legezko ordezkariak bere gain hartuko du, Batzar Nagusian eta Zuzendaritza Batzordean onartutako erabakiak gauzatuko ditu, batak zein besteak egiten dituzten bilerak zuzenduko ditu, eta berdinketa gertatuz gero, erabaki egingo du, kalitateko botoaz baliatuz.

38. ARTIKULUA

1.- Batzar Nagusiak aukeratutako hautagai zerrendako burua izango da EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakaria.

2.- Lehendakariak honako arrazoi hauetako bat gertatzen denean utziko du kargua:

- a) Dimisioa aurkeztea edo hiltzea.
- b) Zentzura mozioa onartzea. Zentzura mozioa Batzar Nagusira bertarutzen diren kideen gehiengo soilaz onartu beharko da. Kasu horretan, zentzura mozioak lehendakaritzaren titular berria aukeratzeko proposamena barne hartu beharko du.
- c) Gaitasunik gabe uztea edo ezgaitzea.

3.- Lehendakariak kargua utziko balu, kargu hori berriz hautatu beharko da. Kargutik kentzean, jardunean jarraituko du eta Hauteskunde Batzordeari bilerara deituko dio, gehienez hilabeteko epean. Epe hori igarotzen bada, eta deialdirik egon ez bada, Batzar Nagusiko kide guztien % 5 ordezkatzeko duen edozein kide taldek deitu ahal izango dio bilerara Hauteskunde Batzordeari.

39. ARTIKULUA

Lehendakaria berriro aukeratu ahal izango da, baina agintaldien iraupena zortzi urtekoa izango da, edo bi agintaldikoa gehienez. Hala ere, zortzi urte igaro ondoren edo bere agintaldia bukatu eta handik bi agintalditara, hauteskunde edo izendapen prozesu berrietan parte hartu ahal izango du.

Beste hautagairik ez balego, eta estatutu hauetan ezarritako agintaldiaren muga gaindituz gero, Lehendakariak berriro aurkez dezake bere burua, berriro hauta dezaten.

IV. KAPITULUA.- XEDAPEN KOMUNAK

40. ARTIKULUA

Estatutu honetako 15. artikuluan jasota dauden organoetako kideek euren funtzioak betetzen jarraituko dute ondorengoak karguaz jabetu arte.

41. ARTIKULUA

1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kide anitzeko organoen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko dira, lege edo estatutu xedapenek gehiengo kualifikatua eskatzen duten kasuetan izan ezik.

2.- Betiere kide guztiak berriaz onartzen dutenean, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kide anitzeko organoek posta elektronikoz, faxez, bideokonferentziaz eta antzeko baliabide teknikoek baliatuz premiazko erabakiak hartu ahal izango dituzte. Kasu horietan, dagokion aktarekin batera faxen, mezu elektronikoen eta dagozkien euskarrien ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira.

ESTATUTUAK EMF

42. ARTIKULUA

1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusiko kide izateko, honako hauek bete behar dira:

- a) Adin nagusikoa izatea.
- b) Herritartasun administratiboa EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) jarduera eremuaren barnean izatea. Salbuespenez, Batzar Nagusiak baldintza hori dispentsa dezake.
- c) Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasuna kentzen duen diziplinazko zigor irmorik bete behar ez izatea.
- d) Epai judizial irmoz kargu publikoak betetzeko gaitasuna baliogabetzen duen zigorrik ez izatea.
- e) Erabaki judizial irmoz ezgai ez izatea.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, aurreko baldintzak betetzeaz gain, beharrezkoa izango da federazioko lizentzia indarrean izatea.

43. ARTIKULUA

1.- Federazioko organoek hartzen dituzten erabaki guztien akta egingo du idazkariak. Aktan honako hauek jaso behar dira gutxienez: bertaratutako pertsonen izena; bilera noiz eta non egin den; eztabaidatu diren puntu nagusiak; botazioaren era eta emaitza; eta erabakien edukia.

2.- Onartutako erabakiaren aurkako botoek, arrazoitzen diren heinean, kide anitzeko organoen erabakietatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunez salbuets dezakete.

44. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Zuzendaritza Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen batzordeak eta gainerako organo osagarriak era ditzake, bai EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kirol jardueraren sektore bat garatzeko, bai EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kide diren taldeen edo estamentuen funtzionamendurako.

45. ARTIKULUA

1.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) dopatze kasuetan aplikatu beharreko arauak ezarriko dituzten organoak izan behar ditu.

2.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) batzorde tekniko bat izango du, eta organo hori arduratuko da EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kirol zuzendaritzaz eta zuzendaritza teknikoaz.

3.- Aldi berean EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) antolaketa eta funtzionamendu onerako beharrezkotzat jotzen dituen beste batzorde batzuk ere izan ahalko ditu, eta horiek Arautegian zehaztu ahal izango dira.

46. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) zuzendariak honako eskubide hauek dituzte:

- a) Eusko Jaurlaritzak federazioetako zuzendariari eskaintzen dien etengabeko prestakuntza eta doako aholkularitza teknikoa jasotzea, euren funtzioak behar bezala betetzeko.
- b) Euren funtzioak gauzatzeak eragiten dizkieten gastuen dirua itzultzea, EMFn (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) aurrez zehazturiko mugetan.
- c) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) bitartez, borondatezko jardueratik ondoriozta daitezkeen istripu arriskueterako eta erantzukizun zibilerako aseguruia izatea.
- d) Jarduera baldintza egokietan egitea duintasunaren, segurtasunaren eta higienezko aldetik, zereginen izaera eta ezaugarriak aintzat hartuta.
- e) Zuzendariak direla egiaztatzen duen akreditazioa izatea.
- f) Kirolaren esparruan egindako gizarte ekarpenarengatik errespetua eta esker ona jasotzea.
- g) EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) zuzendaritza organoetan parte hartzeko beharrezko informazioa eta dokumentazioa eskura izatea.
- h) Izendatzen zaizkien funtzioak behar bezala betetzeko behar diren materialak era iraunkorrean jasotzea.

ESTATUTUAK EMF

- i) EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) arauetan jasota dauden bestelako eskubideak.

47. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) zuzendariak honako betebeharrak dituzte:

- a) Betebeharrak gauzatzean jasotako eta ezagututako informazioaren gaineko konfidentzialtasuna gordetzea, hala dagokionean. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak horrek kargua utzitakoan ere iraun egingo du.
- b) Funtzioak betetzean behar bezalako arduraz jokatzeko, hau da, uneoro EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estatutuaren arabera jokatzeko.
- c) Dagozkien kirol federazioek eskuratzen dizkieten baliabide materialak errespetatzea eta zaintzea.
- d) EMFrekin (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) hartutako ardurak betetzea.
- e) Funtzioak behar bezala betetzeko antolatzen diren prestakuntza jardueretan parte hartzea.
- f) Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan debekatuta dauden bestelako ordain ekonomikoak uko egitea.
- g) Funtzioak betetzen jarraitzea, ondorengoek kargua hartzen duten arte, ezinbestean utzi behar izatekotan salbu.
- h) Eskumena duten organoek onartzen dituzten erabakiak eta ebazpenak onartzea.
- i) Kargua uzten duten zuzendarien ordezkari behar den dokumentazio eta informazio guztia eskuratzea.
- j) Euren interes pertsonalekin zerikusia duten gaiak buruzko deliberamenduetan ez parte hartzea. Interes pertsonala egongo da, baldin eta gaiak zuzendariaren ezkontideari edota antzeko afektibitate harremanak duten pertsonari, edota haren ondorengoei edo aurrekoei ere eragiten badie, eta baita zuzendaritzako kargua nahiz neurri bateko partaidetza duen sozietateari eragiten badiu ere.
- k) Kide den organoen bileretara joatea, eta parte hartze aktiboa izatea deliberamenduetan, berorren irizpideak erabaki egokiak hartzen lagun dezan.
- l) Eskuratzen zaion akreditazioa behar bezala erabiltzea.
- m) Hala bada dagokio, EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) onartuko duen kode etikoa betetzea.
- n) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estatutuaren edo arautegietako arauetan jasota dauden bestelako betebeharrak.

48. ARTIKULUA

1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakari kargua bateraezina da beste kirol federazio bateko lehendakari karguarekin, beste kirol modalitate bateko federazioa bada ere.

2.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakari kargua bateraezina da federazio horren baitako klub edo kirol elkarte bateko lehendakari karguarekin. Lehendakaritzaren titular den pertsona, hain zuzen, klub edo kirol elkarte bateko ordezkari gisa batzarrean egoteagatik aukeratzen badute, honek EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) edo klubeko kargua aukeratu beharko du, eta ulertuko da klubeko karguari uko egiten diola, baldin eta ez badu berriaz bietako bat aukeratzen.

3.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakaritza bateraezina izango da Foru Administrazioaren edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren baitan federazioei zuzenean lotuta dauden kargu publikoekin.

4.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) zuzendaritza kargua bateraezina da erakunde bereko kontseilari edo aholkulari profesional izatearekin. Halaber, kirol federazio bateko zuzendaritza kargua bateraezina da kirol erakunde berean zerbitzu profesionalak eskaintzearekin lan harremanaren, harreman zibilaren edo merkataritza harremanaren bidez.

49. ARTIKULUA

ESTATUTUAK EMF

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) zuzendariak debekatuta dituzte honako hauek:

- a) Kargua utzi edo dimisioa aurkeztu eta gero kalte ordainak jasotzea.
- b) Hirugarren pertsonengandik edo erakundeengandik komisioak edo antzeko mozkinak jasotzea, kirol erakundeak ondasunak edo zerbitzuak kontratatzearen truke.
- c) Kirol helburuak edo helburu ekonomikoak lortzeagatik pizgarriak jasotzea.
- d) Enpresen bitartez edo hirugarren pertsonen edo erakundeen bitartez kontratuak egitea EMFekin (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) berarekin. Autokontratatzeko debekuak ezkontideen, antzeko afektibitate harremanaz lotutako pertsonen eta ondorengoen nahiz aurrekoen enpresei eragiten die.
- e) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ondarea erabiltzea edo federazioaren barruan duen postua ondareei loturiko abantailak lortzeko erabiltzea.

IV. TITULUA.- FEDERAZIOAREN ESTAMENTUAK

50. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) honako estamentu hauek ditu:

- 1.- Mendiko kirol klubak eta taldeen estamentua.
- 2.- Kirolarien estamentua.
- 3.- Teknikarien estamentua.
- 4.- Epaileen estamentua.

Estamentu desberdinen zereginak, betebeharrak, baldintzak, antolaketa eta funtzionamendua arautegian zehaztuko dira.

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estamentuetako kideek honako eskubide hauek izango dituzte, gutxienez:

- a) Federazioko organoetan ordezkaritza izatea eta haietako kide izatea, aplikagarria den araudiaren arabera ezarritako eran, baldintzetan eta proportzioan.
- b) EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) antolatutako jarduera guztietan parte hartzea, federazioak horren gainean dituen arauen arabera.
- c) Eskatu bezainbesteko informazioa jasotzea eta kirolaren garapena hobetzeko federazioko gaiei buruz dituzten irizpideak eta iritzia libreki azaltzea.
- d) Federazioko organo eskumendunetara jotzea, federazioko arauak bete daitezela eskatzeko.
- e) Egoki iruditzen zaizkien kontsultak eta erreklamazioak egitea, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) arauekin bat.

51. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estamentuetako kideek honako betebeharrak hauek dituzte:

- a) Ezarritako federazio lizentziak eta kuotak ordaintzea.
- b) Federazioko organoetan onartutako erabakiak betetzea, horretarako eskumena duen organoak baliogabetzen edo bertan behera uzten ez dituen bitartean.
- c) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) helburuak lortzen parte hartzea era aktiboan.
- d) Dituzten karguei atxikitako betebeharrak leialki betetzea.
- e) Euskadiko selekzioek kirol lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

52. ARTIKULUA

Estatutu hauen ondorioetarako, mendiko kirol klubak edo taldeak urtarrilaren 31ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirol Federazioenak, III. Tituluan dioenaren arabera eraturitako taldeak dira, helburutzat mendizaleatasuna sustatzea eta praktikatzea dutenak, diziplina desberdinetan. Kirol klubek eta taldeek EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) honetako eta dagokien Lurralde Federazioko kide izan behar dute, hala, horien babespean egoteko. Lurralde Federazioan izena ematean automatikoki EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) barnean inskribatuta geldituko dira.

ESTATUTUAK EMF

53. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kide izateko, kirol klubek eta taldeek ondokoak egin behar dituzte:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroan inskribatu behar dute, mendizaletasunari dagokion modalitatearen barnean.
- b) EMFri (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) bertako partaide izateko eskaera egin behar die idatziz, dagokion Lurralde Federazioaren bitartez.

54. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) mendizaleak mendizaleen estamentuari dagokion federazio lizentziaren titular diren pertsona fisikoak dira.

55. ARTIKULUA

- 1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) teknikariak EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eskatutako tituluaren jabe direnak eta estamentu honi dagokion federazio lizentzia dutenak dira.
- 2.- Teknikariak, hala badagokie, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) teknikarien elkargoan bilduko dira.
- 3.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) onartutako arautegiak zehaztuko ditu teknikari motak eta bakoitzaren zereginak eta izendatzeko baldintza zehatzak.

56. ARTIKULUA

- 1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) epaileak eskumena duen erakundeak emandako titulua eta dagokion federazioaren lizentzia duten pertsona fisikoak dira.
- 2.- Epaileak, hala badagokie, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) epaileen elkargoan bilduko dira.
- 3.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) onartutako arautegiak zehaztuko ditu epaile motak eta bakoitzaren zereginak eta izendatzeko baldintza zehatzak.

V. TITULUA.- DIZIPLINA ERREGIMENA

57. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) diziiplina erregimena ekainaren 11ko 14/1998 Legeko X. Tituluan, urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan edo honen ordezkio xedapenean, honako estatutu hauetan eta EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Kirol Diziplinari buruzko Araudian jasota dagoenaren arabera arautuko da.

58. ARTIKULUA

- 1.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) bere organo egiturako kide diren pertsonen gainean eta federazioko kide diren pertsona fisikoen eta juridikoen gainean bakarrik izango du diziiplina ahalmena.
- 2.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ezin izango du diziiplina ahalmena erabili kirol jarduera bereko beste lurralde eremuetako federazioetako kideen kasuan, ezta kirol jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan badute ere.

59. ARTIKULUA

- 1.- Diziiplina Batzordea eta Apelazio Batzordea dira kirol diziiplina ahalmena duten EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) organoak, federazioko gainerako organoak kontuan hartu gabe.
- 2.- Diziiplina Batzordeak EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) esparruan lan egingo du.
- 3.- Apelazio Batzordea arduratuko da EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eta Lurralde

ESTATUTUAK EMF

Federazioetako Diziplina Batzordeek hartutako erabakien aurka jartzen diren errekurtsuez.

60. ARTIKULUA

- 1.- Diziplina Batzordearen eta Apelazio Batzordearen kide kopurua bakoitia izango da, eta Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu. Pertsona bakarreko organoa izan daiteke.
- 2.- Batzordeetako kideak 4 urtetarako izendatuko dira, eta kargua betetzeko beharrezko ezagutzak izan beharko dituzte.
- 3.- Diziplina Batzordeko eta Apelazio Batzordeko kideek Zuzendaritza Batzordean parte hartu ahal izango dute, eta EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Lehendakariaren irizpideen arabera kargutik kendu ahal izango dira.

61. ARTIKULUA

- 1.- Diziplina Batzordeak hartutako erabakien aurka egin ahal izango da EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Apelazio Batzordearen aurrean.
- 2.- Apelazio Batzordeak hartutako erabakien aurka egin ahal izango da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

VI. TITULUA.- HAUTESKUNDE ERREGIMENA

62. ARTIKULUA

Hauteskunde erregimena urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko VII. Tituluan erabakitakoak, horren garapeneko xedapenek, Estatutu hauek eta nahitaez Batzar Nagusiak onartutako Hauteskunde Arautegiak arautuko dute.

63. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusia aukeratzeko hautesleak Estatutu honetako 18.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten Lurralde Federazioetako Batzar Nagusietako kideak izango dira. Aukeraketak ez ditu izango hauteskunde prozesuaren ezaugarriak, eta Lurraldeko Batzar Nagusien baitan bozkatuko da, berritu eta gero deitzen den lehen bileran, indarrean dagoen araudiaren arabera.

64. ARTIKULUA

EMFn (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) hauteskunde batzorde bat izango da, hauteskunde prozesua bultzatzeko eta behar bezala gauza dadin bermatzeko. Hauteskunde Batzordea kide bakarrekoa izan daiteke. Kide anitzeko organoa bada, hiru kidek osatuko dute.

65. ARTIKULUA

Hauteskunde Batzordeko agintaldiak lau urte iraungo du, baina Batzar Nagusiak kargutik kendu ahal izango du eta beste bat izendatu, aldi hori amaitu baino lehen.

66. ARTIKULUA

- 1.- Hauteskunde Batzordeko kideak, eta baita ordezkokoak ere, zozketa publikoz izendatuko dira hautagai izango ez direnen artean. Boluntarioak ere aukeratu ahal izango dira, betiere Batzar Nagusian bertaratutako kideen bi herenek onartzen badute.
- 2.- Hauteskunde Batzordeko Lehendakaria eta Idazkaria adin handienekoa eta txikienekoa izango dira, hurrenez hurren.
- 3.- Hauteskunde Batzordean ez dute inolaz ere hautagaiak parte hartuko; izendatutako Hauteskunde Batzordeko kide bat hautagairako aukeratua izaten bada, kargua utzi beharko du, eta bere postua ordezkokoak beteko du.

ESTATUTUAK EMF

67. ARTIKULUA

- 1.- Hauek izango dira Hauteskunde Batzordearen futzioak:
 - a) Hautesleen errolda eta hauteskundeetako egutegia onartzea.
 - b) Aurkezten diren hautagaiak aldarrikatzea eta argitaratzea.
 - c) Hauteskunde mahaia izendatzea.
 - d) Hautetsiak zein diren aldarrikatzea.
 - e) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak eta eskaerak ebaztea, eta baita Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekursoak ere.
 - f) Hauteskundeak egiteari eta hauteskundeko emaitzei zuzenean eragiten dien edozein gai.
- 2.- Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka egin ahal izango da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean.

68. ARTIKULUA

Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez diren hautesleen artean zozketa egin ondoren, Hauteskunde Mahaia izendatuko du. Hiru pertsonak, eta hiru ordezkok, osatuko dute mahaia. Mahaiko lehendakaria eta idazkaria adin handienekoa eta txikienekoa izango dira, hurrenez hurren.

69. ARTIKULUA

- 1.- Hauteskunde Mahaia honako funtzio hauek izango ditu:
 - a) Bozketa behar bezala egin dadin bermatzea.
 - b) Bozkatzaren duten pertsonen identitatea eta hautesle izaera egiaztatzea.
 - c) Ematen diren botoak baliozkoak diren erabakitzea.
 - d) Behin bozkatutakoan, botoak zenbatzea.
 - e) Bozketari dagokion beste edozein gairi buruz erabakiak hartzea.
- 2.- Hauteskunde Mahaiko erabakien aurka egin ahal izango da Hauteskunde Batzordearen aurrean.

VII. TITULUA.-EKONOMIA ETA ONDARE ERREGIMENA

70. ARTIKULUA

- 1.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) berezko aurrekontu eta ondare erregimena du.
- 2.- EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ondarea titular gisa dituen ondasun guztiek osatzen dute.
- 3.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) baliabide hauek ditu:
 - a) Federatuen kuotak.
 - b) Erakunde publikoek emandako dirulaguntzak.
 - c) Dohaintzak, oinordetzak, legatuak eta sariak.
 - d) Antolatutako jardueretan eta lehiaketetan ateratako mozkinak.
 - e) Industria eta merkataritza jardueratik, profesionalen jardueratik eta eskaintzen diren zerbitzuetatik ateratako mozkinak.
 - f) Bere ondarearen fruituak eta ondarea besterentzetik edo zergapetzetik ateratze dena, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 138. artikuluan ezarritako baldintzetan.
 - g) Lortzen dituen maileguak edo kredituak.
 - h) Bere jarduera garatzean lor dezakeen beste edozein.

71. ARTIKULUA

- 1.- Federazioko diru sarrera guztiak, bai kirol jardueretan lortutako mozkinak eta sariak, eta baita industria, merkataritza, zerbitzu izaerako edo izaera profesionaleko jardueretatik atera daitezkeenak ere, sozietate xedea garatzeko erabiliko dira osorik.
- 2.- Mozkinak ezin izango dira inolaz ere EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kideen artean banatu.

ESTATUTUAK EMF

72. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ondasun higiezinak zergapetu edo besterendu ditzake, maileguan dirua har dezake eta zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailak jaulki ditzake, baldin eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 138. eta 139. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

73. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) goi zuzendaritzako lan kontratuak izenpetu ahal izango ditu, baldin eta erabakia eta ordainsaria zein kontratuko bestelako baldintzak Batzar Nagusian bertaratutako kideen gehiengo osoz onartzen badira eta kontratua Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak onartzen badu.

74. ARTIKULUA

- 1.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) urtero onartuko ditu ekitaldiko aurrekontuak.
- 2.- Zuzendaritza Batzordeari dagokio aurrekontuen proiektua gauzatzea, eta Batzar Nagusiari dagokio onartzea.
- 3.- Aurrekontuan EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) gehienez onar ditzakeen betebeharrak eta dagokion ekitaldian likidatuko dituen eskubideak adierazi beharko dira (zifraz horniturik, era bateratuan eta sistematikoki). Era berean, kirol modalitate horretan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeari lotutako betebeharrak ere adierazi beharko dira EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) aurrekontuan.
- 4.- Aurrekontu bakarra egongo da, eta EMFko gastu eta diru sarrera guztiak hartuko ditu barnean, organo osagarrienak eta horien tresna erakundeenak barne. Alde horretatik, Pyrenaica aldizkaria, komunikatzeko, informatzeko eta prestatzeko tresna den aldetik eta federazioaren beraren egituraren eta funtzionamenduaren funtsezko elementua denez, EMFren tresna erakundetzat hartuko da.
- 5.- Aurrekontua orekatua izango da, eta inolaz ere ez da defizita sortzen duen aurrekonturik onartuko aldeztatik Eusko Jaurlaritzaren baimena eskuratu gabe.
- 6.- Behin Batzar Nagusiaren onarpena lortutakoan, aurrekontua eta aurreko ekitaldiko likidazioa Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaizkio.
- 7.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Zuzendaritza Batzordeak guztizko aurrekontuaren % 20 gainditzen ez duten kreditu aldaketak erabaki ahal izango ditu.

75. ARTIKULUA

- 1.- Ekitaldi bakoitza itxi eta ondorengo hiru hilabeteetan, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusian aurkeztu beharko ditu urteko kontuak. Kontuetan honako hauek hartu behar dira barne: galeren eta irabazien balantzea eta memoria ekonomikoa.
- 2.- Zuzendaritza Batzordeak egindako urteko kontuak Lehendakariak izenpetu beharko ditu, bai eta, hala badagokio, Diruzainak ere.
- 3.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) urteko kontuen egitura Kontabilitateko Plan Orokorreko egokitze arauekin bat etorriko da; azken horiek, erakunde horien berezitasunak direla medio, arautegietan xedatuko dira. Xedatzen ez diren bitartean, urteko kontuak Kontabilitateko Plan Orokorrekin bat etorriko dira.

76. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) funtsak banku edo aurrezki kutxetan gordeko dira, EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) izenean dauden kontu korronteetan, eta Lehendakariak zehaztutako mugen barnean, gastu txikiei aurre egiteko beharrezko kopuruak kaxan gorde ahal izango dira.

77. ARTIKULUA

ESTATUTUAK EMF

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) kontu korrante horietatik diru kopuruak ateratzeko bi sinadura beharko dira, Lehendakariarena edo horren ordezkariarena eta Diruzainarena.

78. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) finantzen eta kudeaketaren kontu ikuskaritza egin beharko du, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 144. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

VIII. TITULUA.- AGIRI ERREGIMENA

79. ARTIKULUA

1.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA), nahitaez eta legeztatuta, honako liburu hauek izan behar ditu:

- a) Federazioko estamentuen liburua, estamentu bakoitzari dagozkion ataletan banatuta. Atal horiek eguneratuta egongo dira, eta federazioan sartu diren data nahiz federaziotik atera diren data azalduko dira.
- b) EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) akten liburua; Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak eta EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) gainerako organoek hartutako erabakiak jasoko ditu.
- c) Kontabilitate liburuak.
- d) Hala badagokio, zor tituluen edo ondare parte alikuotaren erregistro liburua.

Liburu hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan izapidetu beharko dira, eta horretarako informazio teknika modernoak erabili ahalko dira.

2.- Horrez gain, liburu hauek ere izan behar ditu:

- a) Sartzen eta irteten diren agirien erregistro liburua.
- b) Estatutu honetan xedatutako arbitrajeari uko egiteen erregistro liburua.

IX. TITULUA.- FEDERAZIOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

80. ARTIKULUA

1.- EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegin egingo da:

- a) Artikulu honetako bigarren atalean zehaztutako arrazoiren bat gertatuz gero ohiz kanpoko Batzar Nagusiak, kideen bi herenen gehiengoaz, hala erabakitzen duenean.
- b) Erabaki judiziala ematen denean.

2.- EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegin beharra izango da honako hauetako bat gertatzen bada:

- a) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) onarpen ofiziala baliogabetzea.
- b) Administrazio funtzio publikoak behar bezala betetzea guztiz ezinezkoa izatea.
- c) Federazioko organoak gelditzea, eta, ondorioz, funtziona dezaten ezinezkoa izatea.
- d) Eskuordetzen zaizkien funtzio publikoak ez betetzea.
- e) Beste kirol federazio batekin bat egitea.
- f) Beste kirol federazio batean sartzea.
- g) Indarrean dagoen legedian jasota dauden beste edozein arrazoi gertatzea.

81. ARTIKULUA

1.- Lehendakariak Batzar Nagusiari deituko dio, dagokion desegiteko erabakia har dezan. Erabakia bi hilabeteko epean hartu behar da, desegitea eragiten duen arrazoia ezagutzen den unetik zenbatzen hasita.

2.- Pertsona federatuek eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak ere eskatu ahal izango diote Lehendakariari Batzar Nagusiari dei diezaion, baldin eta, hauen ustez, aurreko artikuluan zehaztuta dauden arrazoiak bat gertatzen bada.

3.- Batzar Nagusiari deitzen ez bazaio, edo adostasuna lortu ezin bada, edo ez desegitea adosten bada,

ESTATUTUAK EMF

edozein federatuk edo eskumena duen kirol administrazioak berak EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegite judiziala eskatu ahal izango du.

4.- EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Zuzendaritza Batzordea behartuta dago desegite judiziala eskatzera, federazioaren erabakia desegitearen aurkakoa baldin bada, edo desegitea lortu ezin bada.

82. ARTIKULUA

EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegindakoan, likidatzeko aldia hasiko da, bat-egiteak edo EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) aktiboen eta pasiboen lagapen globala gertatzen denetan izan ezik.

83. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegin ondoren nortasun juridikoa gordeko du likidatzen ari den bitartean. Aldi horretan “likidatzen” hitza gehitu beharko dio bere izenari.

84. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) likidatzen ari dela adierazten duen unean Zuzendaritza Batzordeak bertan behera utziko ditu bere funtzioak, eta likidatzaileek euren gain hartuko dituzte funtziook. Hala ere, Zuzendaritza Batzordeko kideek parte hartu beharko dute likidazio eragiketak gauzatzeko.

85. ARTIKULUA

1.- EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusiari dagokio likidatzaileak izendatzea, eta hauen kopurua beti bakoitia izango da.

2.- Bai likidatzaileak izendatzen direnean bai kargutik kentzen direnean, Kirol Erakundeen Euskadiko Erregistroan jaso beharko da.

86. ARTIKULUA

Honako hauek dira EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) likidatzaileen ardurak:

- a) Administrazio organoarekin batera, euren funtzioetan hastean EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) hasierako balantzea onartzea.
- b) EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) liburuez eta korrespondentziaz arduratzea eta horiek zaintzea, eta federazioaren ondarearen segurtasuna bermatzea.
- c) EMF (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) likidatzeko egin gabe dauden eragiketak nahiz eragiketa berriak gauzatea.
- d) Federazioen ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun higiezinak enkante publikoan salduko dira nahitaez. Eusko Jaurlaritzak baimentzen duen kasuetan soilik egin ahal izango dira zuzeneko salmentak.
- e) Transakzioak eta arbitrajeak adostea, federazioaren interesei hala komeni zaienean.
- f) Hartzekodunei ordaintzea.
- g) EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ordezkari izatea.

87. ARTIKULUA

Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek azken balantzea egingo dute. Balantzea Batzar Nagusian onartuko da, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara bidaliko da.

88. ARTIKULUA

Honako hauek dira likidatzaileen jardura amaitzeko arrazoiak:

- a) Likidazioa burutzea.
- b) Batzar Nagusiak emandako ahalordeak baliogabetzea.
- c) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak ahalordeak baliogabetzea edo gaitasunik gabe uztea.

ESTATUTUAK EMF

d) Erabaki judiziala.

89. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ez badu kaudimenik, likidatzaileek berehala eskatu beharko dute dagokion lehiaketa adierazpena.

90. ARTIKULUA

Likidazio Batzordeak emango dio EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) desegitearen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroari, honek inskripzioa ken dezan.

X. TITULUA.- ESTATUTUAK ETA ARAUTEGIAK

91. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Estatutuak ohiz kanpoko Batzar Nagusian hartutako erabakiz aldatu ahal izango dira soilik; horretarako, bileran parte hartu duten kideen bi herenek erabaki horren aldeko botoa eman beharko dute.

92. ARTIKULUA

Estatutuen proiektua onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara bidaliko da, hirurogei egun naturaleko epean, Batzar Nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.

93. ARTIKULUA

Estatutu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzak eskatzen duen euskarri informatikoan.

94. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estatutuak indarrean sartzeko, administrazio onarpena beharko dute eta Euskal Herriko Agintaritzen Aldizkarian argitaratu beharko dira.

95. ARTIKULUA

EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) honako hauek arautu beharko ditu, gutxienez:

- a) Federazioko lehiaketa ofizialak antolatzeke eta garatzeko erregimena.
- b) Diziplina erregimena.
- c) Hauteskunde erregimena.
- d) Auziak judizioz kanpo ebazteko erregimena.
- e) Lizentzien erregimena.

96. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) arautegiak Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan, hirurogei egun naturaleko epean, Batzar Nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.

97. ARTIKULUA

Arautegiak onartu eta aldatu ahal izateko, beharrezkoa izango da horretarako deitutako Batzar Nagusira bertaraten diren kideen gehiengoak horren aldeko botoa ematea.

98. ARTIKULUA

1.- Federazioaren zirkularrak estatutuen eta arautegien indarraldia, ezarpena, interpretazioa nahiz federazioari dagozkion bestelako gaiak ezagutarazteko erabiliko dira, baina ez dute arau izaerarik izango.

2.- Federazioaren zirkularrek ez dute alde zuzenetik administrazio onarpena izan beharrik.

ESTATUTUAK EMF

99. ARTIKULUA

1.- Lurralde eremu handiagoko kirol federazioen estatutuak eta arautegiak EMFri (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eta bertako kideei aplika dakizkieke soilik haietako kide badira eta haiek eskumena duten gaien inguruan. Kasu horietan, EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) arau horiek zabaldu beharko ditu, EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estamentu desberdinek behar bezala ezagut ditzaten. Arau horiek EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) hizkuntza ofizialetako batean idatzita egon beharko dute.

2.- Lurralde eremu handiagoko kirol federazioen gainerako arautegiak ez zaizkie zuzenean aplikatuko euskal federazioei eta horietako kideei. EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) berezko arautegian sartzeko, federazioaren eta administrazioaren onarpena beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratzea beharrezkoa izango da.

3.- Erkidegoaz gaindiko kirol federazioen arautegiak ezin izango dira era osagarrian aplikatu EMFn (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA). Hala ere, arau horiek era osagarrian aplikatu ahal izango ditu, baldin eta bere arautegietan berariaz hala ezartzen bada, federatuei arau horiek egoki itzulita eskaintzen bazaizkie eta behar bezala ezagutarazten badira.

XI. TITULUA.- HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA

100. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.

101. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) organoek EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) barnean hizkuntza normalizatzeko prozesua pixkanaka garatuko dute, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko aldi baterako hirugarren xedapenean zehaztutakoaren arabera.

102. ARTIKULUA

EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) ziurtagiriak bi hizkuntzetan edota Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean eman ahal izango dira, interesdunak adierazten duenaren arabera.

XII. TITULUA.- AUZIEN JUDIZIOZ KANPOKO EBAZPENA

103. ARTIKULUA

EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eta federatuen edo kideen nahiz horien artean sor daitezkeen auziak edo gatazkak Zuzenbidezko Arbitrajearen bidez ebatziko dira, indarrean dagoen legedian, Estatutu hauetan eta Garapen arautegian jasota dagoenarekin bat.

104. ARTIKULUA

Arbitraje bidez ebatzi daitezkeen auzi edo gatazkak edo, oro har, judizioz kanpo ebatzi daitezkeen gatazkak, Kirol Arbitrajearako Euskal Auzitegiaren pean jarriko dira.

105. ARTIKULUA

Administrazioak EMFri (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eskuordetutako funtzio publikoen gauzatzearekin zerikusia duten gaiak eta legediak berariaz eta legez arbitrajetik kanpo uzten dituen gaiak izan ezik, beste guztiak bide horretatik ebatziko dira.

106. ARTIKULUA

Estatutu hauek onesten diren egunetik edo lizentzia eskuratzen duenetik hasita hilabeteko epean, berariaz horiei uko egiten ez dien EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) federatu edo kide

ESTATUTUAK EMF

oro Estatutu hauetan eta horien garapenerako araudian aurreikusitako arbitraje sistemaren eta judizioz kanpoko ebazpen sistemaren pean jartzen dela ulertuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25. artikuluan aurreikusitako lizentzien ezaugarri teknikoak onesten ez dituen bitartean, lizentziak egokien iruditzen zaion formatuan izapidetzen jarraitu ahal izango du EMFk(EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA).

Bigarrena.- Estatutu hauetako 29. eta 41. artikuluetan ezarritako agintaldi mugek ez dute eraginik izango estatutu hauek indarrean sartzean lehendik zeuden kargudunengan, eta, ondorioz, kargudun horiek beren egungo agintaldiak amaitu ahal izango dituzte. Estatutuetaiko aipatutako muga horiek hurrengo hauteskunde prozesuetarako aplikatuko zaizkie kargudun horiei.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- EMFk (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) mendiko teknikarien prestakuntza bultzatuko eta sustatuko du Euskal Goimendi Eskolaren bidez, eta halaber, lurralde federazioek sustatutako eta kudeatutako Eskolen arteko lankidetzaren bidez.

Bigarrena:- Hezkuntza publikoak eskumen hori bere gain hartzen ez duen bitartean, Euskal Goimendi Eskolak berak emandako ikastaroen bidez edo honek zuzendutako probak gaindituz luzatuko dira EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) diploma eta onarpen ofizialak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2009ko urriaren 27an onartutako EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) estatutuak ezeztatu dira.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

DONOSTIAN, 2015eko azaroaren 7a,

Idazkaria

Presidentea

ESTIBALIZ KEREXETA FERNANDEZ

JOSEBA UGALDE EGAÑA